UDALA-AYUNTAMIENTO

# KUDEAKETA, BILKETA ETA IKUSKARITZAREN UDAL ORDENANTZA

# ORDENANZA MUNICIPAL DE GESTIÓN, RECAUDACIÓN E INSPECCION

## ***I.- ARRAZOIEN AZALPENA:***

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorra izeneko foru araudi berria eta berau garatzeko eman diren gainerako lege-xedapenak (Zehapen Araudia onetsi duen 100/2005 FD, Zerga Ikuskapenaren Araudia onetsi duen 99/2005 FD, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Bilketari buruzko Araudia onetsi duen 215/2005 FD) eta Toki Ogasunei buruzko Foru Arau berria onetsi ostean, Leioako Udalak, arau horiei egokitu behar dizkie zergen eta zuzenbide publikoko bestelako diru-sarreren bilketa-kudeaketak, horietan ezarritako epearen barruan.

Horretarako, Leioako udalak, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Bilketari buruzko Araudiak aintzatetsitako arauak ezartzeko ahalmena erabiliko du bilketa-prozedurak lege-eredu berriari egokitzeko, Kudeaketa, Bilketa eta Ikuskaritzaren Ordenantza honen bitartez.

## ***I.- EXPOSICIÓN DE MOTIVOS:***

Tras la aprobación de la nueva normativa foral, la Norma Foral General Tributaria del THB 2/2005, y las demás disposiciones legales dictadas para su desarrollo, el Reglamento Sancionador DF 100/2005, Reglamento de Inspección Tributaria DF 99/2005, Reglamento de Recaudación del THB DF 215/2005, así como la nueva Norma Foral de las Haciendas Locales, el Ayuntamiento de Leioa se ve en la necesidad de adaptar, la gestión recaudatoria de los tributos y otros ingresos de derecho público a dichas normas, dentro del plazo establecido en las mismas.

Para ello el Ayuntamiento de Leioa utiliza la capacidad normativa reconocida por Norma Foral General Tributaria y por el Reglamento de Recaudación del THB para adecuar los procedimientos recaudatorios al nuevo marco legal mediante la presente Ordenanza de Gestión Recaudación e Inspección.

## ***II.- PRINTZIPIO NAGUSIAK***

*1. artikulua.- Ordenantzaren helburua*

Ordenantza honen helburua Toki Araubidearen Oinarriei buruzko Lege berriak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak eta alor honetako gainerako xedapenek toki erakundeei aitortzen dizkieten zergak bildu, kudeatu, zigortu eta ikuskatzeko eskumena egokitzea da.

*2. artikulua.- Lege araubidea*

Honakoek arautuko dute udal honek zergak biltzeko garatutako kudeaketa:

— Leioako Udalaren Kudeaketa, Bilketa eta Ikuskaritzaren Udal Ordenantza.
— Zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorra,

## ***II.- PRINCIPIOS GENERALES***

*Artículo 1.-Objeto de la Ordenanza*

El objeto de esta Ordenanza es la adaptación de la facultad recaudatoria gestora, sancionadora e inspectora reconocida a las Entidades locales por la nueva Ley de Bases de Régimen Local y la Norma Foral General así como por a las demás disposiciones reguladoras de esta materia.

*Artículo 2.- Régimen legal*

La Gestión recaudatoria desarrollada por este Ayuntamiento, se regirá por:

— La Ordenanza municipal de gestión, recaudación e inspección del Ayuntamiento de Leioa.
— La Norma Foral General Tributaria 2/2005,

Toki Ogasunei buruzko 9/2006 Foru Arauan azaldutako berezitasunekin.

— Tokiko zergak arautzen dituzten foru arauak eta horiek garatzeko emandako xedapenak.

— Udalaren Zerga Ordenantzak.

Gainera, horietan azaltzen ez den guztirako, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren eta Aurrekontuei buruzko Foru Arau Orokorraren garapenetan emandako gainerako lege-xedapenek arautuko dute.

con las especialidades contenidas en la Norma Foral de Haciendas Locales 9/2005.

— Las Normas Forales reguladoras de los impuestos locales y las disposiciones dictadas para su desarrollo.

— Las Ordenanzas fiscales municipales.

Y en todo lo no recogido en ellas, por las demás disposiciones legales dictadas en desarrollo de la NFGT y de la NFGP.

*3. artikulua.- Aplikazio eremua:*

Ordenantza hau Leioako udal mugarte osoan aplikatuko da.

*Artículo 3.-Ámbito de aplicación:*

Esta Ordenanza se aplicará en todo el término municipal de Leioa

## *III.- ZERGA KUDEAKETA*

*4. artikulua.-*

Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorrean, Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2006 Foru Arauan eta geroagoko aldaketetan ezarritakoaren arabera garatuko da Zerga Kudeaketa.

## *III.- GESTION TRIBUTARIA*

*Artículo 4.-*

La Gestión Tributaria se desarrollará de conformidad con lo establecido en la Norma Foral General Tributaria, N.F. 2/2005, de 10 de marzo, del Territorio Histórico de Bizkaia, la Norma Foral 9/2005, de 16 de diciembre, de Haciendas Locales y sus posteriores modificaciones.

## *IV.- BILKETA KUDEAKETA*

*5. artikulua.-*

Udalak berak egingo du zerga-kredituen eta udal zuzenbide publikoko gainerako kredituen Bilketa Kudeaketa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorrean eta abenduaren 27ko 215/2005 Foru Dekretuak onetsi zuen Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Bilketari buruzko Araudian ezarritakoari jarraituz. Hala ere, salbuespena izango dira atzerapen eta zatikapenak ematea, eta ordenantza honetan beren-beregi araututakoa.

## *IV.- GESTION RECAUDATORIA*

*Artículo 5.-*

La Gestión Recaudatoria de los créditos tributarios y demás de derecho público municipales se realizará por el propio Ayuntamiento, de acuerdo con lo establecido en la Norma Foral General Tributaria, N.F. 2/2005, del Territorio Histórico de Bizkaia, por el Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Bizkaia, aprobado por D.F. 215/2005, de 27 de diciembre, salvo en lo referente a la concesión de aplazamientos y fraccionamientos y lo expresamente regulado en la presente Ordenanza.

## *V.- IKUSKARITZA*

*6. artikulua.-*

## *V.- INSPECCION*

*Artículo 6.-*

Zerga Ikuskaritza Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorrean, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Ikuskapenaren Araudia onetsi duen ekainaren 21eko 99/2005 Foru Dekretuan eta euren geroagoko aldaketetan ezarritakoaren arabera garatuko da.

La Inspección tributaria se desarrollará de conformidad con lo establecido en la Norma Foral General Tributaria, N.F. 2/2.005, del Territorio Histórico de Bizkaia, y en el Decreto Foral 99/2005, de 21 de junio, por el que se aprueba el Reglamento de Inspección del Territorio Histórico de Bizkaia, y sus posteriores modificaciones

## VI.- ARAU-HAUSTEAK ETA ORDAINARAZPENAK

## VI.- INFRACCIONES Y EXACCIONES

*7. artikulua.-*

Zerga-arloko arau-hausteak Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorrean eta geroagoko aldaketetan ezarritakoaren arabera kalifikatu eta arautuko dira.

Egingo diren zerga arloko arau-hausteei aplikatu beharreko zigorrak Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorrean, Zergen Zehapen Araudia onetsi duen ekainaren 21eko 100/2005 Foru Dekretuan eta euren geroagoko aldaketetan ezarritakoaren arabera arautuko dira.

*Artículo 7.-*

Las infracciones tributarias se calificarán y se regularán de conformidad con lo establecido en la Norma Foral General Tributaria, N.F. 2/2005, del Territorio Histórico de Bizkaia, y sus posteriores modificaciones.

Las sanciones a aplicar a las infracciones tributarias que se cometan se regularán de conformidad con lo establecido en la Norma Foral General Tributaria, N.F. 2/2005, y en el Decreto Foral 100/2005, de 21 de junio, por el que se establece el régimen sancionador tributario, y sus posteriores modificaciones.

## VII.- EGINTZAK ADMINISTRAZIO-BIDEAN BERRIKUSTEA

## VII.- REVISIÓN DE ACTOS EN VIA ADMINISTRATIVA

*8. artikulua.-*

Administrazio-bideko zerga alorrean emandako egintzak berrikusteko, Zergei buruzko 2/2005 Foru Arau Orokorrean eta Toki Ogasunei buruzko 9/2005 Foru Arauan ezarritakoari eta 2/2005 Foru Araua garatzen duen Araudiak administrazio-bideko berrikuspenei buruz aurreikusitakoari jarraituko zaie, betearazpenean eteteari dagokionez izan ezik.

*Artículo 8.-*

La revisión de los actos dictados en materia tributaria en vía administrativa se llevará a cabo conforme a lo establecido en la Norma Foral General Tributaria 2/2005, Norma Foral 9/2005 de Haciendas Locales y lo previsto en el Reglamento de desarrollo de la Norma Foral 2/2005 en materia de revisión en vía administrativa –salvo en lo referente a la suspensión en la ejecución.

*9. artikulua.- Betearazpenean etetea*

Zergen eta zuzenbide publikoko gainerako diru-sarreren aplikazio eta eraginkortasunari buruzko egintzen aurka errekurtsoak jartzeak ez du aurkaratutako egintzaren betearazpena etengo, dagozkion lege ondorioekin, kuota edo eskubide likidatuen bilketa, interesak, errekarguak eta zehapenak barne.

Hala ere, berraztertzeko errekurtsoa garaiz eta behar

*Artículo 9.- Suspensión en la ejecución*

La interposición del recurso de reposición contra los actos sobre aplicación y efectividad de los tributos locales y restantes ingresos de derecho publico, no suspenderá la ejecución del acto impugnado, con las consecuencias legales consiguientes, incluidas la recaudación de cuotas o derechos liquidados, intereses, recargos y sanciones.

No obstante, la interposición en tiempo y forma del

den eran jartzeak aurkaratutako egintzaren betearazpena etetea ekarriko du, automatikoki eta inolako bermerik jarri behar izan gabe, gainera. Horretarako, beharrezkoa izango da zerga-zorra borondatez ordaintzeko aldian egotea edo premiamendu-erabakiaren aurkako errekurtso bat aurkeztuta egotea. Bi kasuotan, betiere, borondatezko aldiaren azkenean, zorraren zenbatekoa **6.000 eurokoa** edo txikiagoa izan beharko da. Automatikoki eteteak ez du berandutza-interesik sortuko errekurtsoa ipini denetik berau ebatzi arte igarotzen den epean.

Aurreko paragrafoan adierazitakoa baino zenbateko handiagoetarako, interesdunak, errekurtsoa egiteko epearen barruan, aurkaratutako egintza etetea eskatu ahal izango du. Horretarako, ezinbestekoa izango da zorraren zenbateko osoa estaliko duen bermea aurkeztea. Ez da errekurtsogileak aukeratu behar dituen honakook beste bermerik onartuko:

a) Diruaren edo balore publikoen gordailua.

b) Kreditu-erakunde edo elkarrekiko bermerako sozietate batek mailegatutako abal edo fidantza solidarioa, edo kauzio-aseguruaren ziurtagiria.

Errekurtsoa ebazteko eskumena duen organoak prozedura etetea erabakiko du, bermerik gabe, ordenantza honetan automatikoki eteteko ezarri den muga gainditzen duelako nahitaezkoa bada, baldin eta:

a) Oker aritmetikoa, materiala edo egitatezkoa egon daitekeela ikusten bada.

b) Errekurtsogileak bermea aurkeztu ezina alegatu eta justifikatzen badu, ebazteko eskumena duen organoaren irizpidearen arabera.

Etetea ematearen ondorioz, haren denbora guztiarengatik berandutza-interesak ordaindu beharko dira beti, eta berraztertzeko errekurtsoan ebatzi arte edo isilean gaitzetsi arte bakarrik izango ditu ondorioak.

*10. artikulua.- Zerga errolda.*

Udalak, zerga erroldarekin batera, aldizka iraungitzen diren zorrak borondatez ordaintzeko epean sartzeko epea iragarriko du, bai eta baterako jakinarazpena ere. Aipatutako epea igaro eta ordainketa guztiz egin ezean, ordaindu gabeko zorra betearazpenez

recurso de reposición, suspenderá, de forma automática y sin necesidad de aportar garantías, la ejecución del acto impugnado, cuando la deuda tributaria estuviese en periodo voluntario de pago o se hubiese interpuesto el recurso de reposición contra la providencia de apremio, y siempre que, en ambos casos, la cuantía de la deuda pendiente al fin de periodo voluntario de pago fuese igual o inferior a **6.000 euros.** La suspensión automática, no generara intereses de demora por el plazo que transcurre desde la interposición del recurso hasta su resolución.

Para cuantías superiores a la indicada en el párrafo anterior, el interesado podrá solicitar, dentro del plazo para interponer el recurso, la suspensión de la ejecución del acto impugnado, a cuyo efecto será indispensable acompañar garantía que cubra el total de la deuda. No admitiéndose otras garantías a elección del recurrente, que las siguientes:

a) Deposito de dinero o valores públicos

b) Aval o fianza de carácter solidario prestado por una entidad de crédito o sociedad de garantía reciproca o certificado de seguro de caución.

El órgano competente para resolver el recurso acordará la suspensión del procedimiento sin prestación de garantía alguna, cuando ésta resulte obligatoria por superar el limite establecido en esta ordenanza para la suspensión automática, en los siguientes casos:

a) Cuando se aprecie que se ha podido incurrir en error aritmético material o de hecho.

b) Cuando el recurrente alegue y justifique, a criterio del órgano competente para resolver, la imposibilidad de prestarla.

La concesión de la suspensión, llevará siempre aparejada la obligación de satisfacer intereses de demora por todo el tiempo de aquella y solo producirá efectos hasta la resolución del recurso de reposición o su desistimiento tácito..

*Artículo 10.- Padrón fiscal.*

El Ayuntamiento, junto con el padrón fiscal, anunciará el plazo para el ingreso en periodo voluntario de las deudas de vencimiento periódico y notificación colectiva, con indicación de que transcurrido el mismo sin que se haya efectuado el pago en su totalidad se

kobratzeko aldia hasiko dela adieraziko da.

Zergadunek berraztertzeko errekurtsoa ipini ahal izango dute zerga errolda bakoitzaren kontra.

iniciara el periodo ejecutivo por la deuda pendiente.

Contra cada padrón fiscal el contribuyente podrá interponer recurso de reposición.

***VIII.- ORDAINKETA***

*11. artikulua.- Ordainketa egiteko legitimazioa:*

Edozein obligaziodunek egin lezake ordainketa, edo beste pertsonaren batek, zorra amaitzeko gaitasun osoa badauka. Hala ere, horrek ez die eskumenik emango gainerakoei Udalaren aurrean beste eskubideren bat gauzatzeko.

*12. artikulua.- Lekua eta momentua*

1. Erakunde laguntzaileetan edo kutxa gisa jarduten duten erakundeetan ordaindu beharko da, zerga ordenantza bakoitzean aurreikusitako moduan.

2. Honako hau izango da ordaintzeko epea:

— Autolikidazioetarako: Zerga bakoitzaren arauetan ezarritakoa.

—Likidazioetarako: Hilabete 1, jakinarazten denetik aurrera zenbatzen hasita.

— Batera jakinarazitako aldian behingo likidazioak: Ezarritako epea 45 egunekoa da.

— Tinbredun efektuekin egindako ordainketa: Zerga egitatea burutzeko momentuan.

*13. artikulua.- Ordaintzeko moduak:*

1. Ordaintzeko, legezko erabilerako dirua, txekea, banku-helbideratzea edo kasu bakoitzean baimendutako beste edozein modu erabili ahal izango da, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga Bilketari buruzko Araudiaren 11 eta 17. artikuluetan ezarritakoari jarraituz.

2. Zorra ordaintzen duenak egindako ordainketaren frogagiria jasotzeko eskubidea izango du.

***IX.- ATZERATZEA ETA ZATITZEA***

***VIII.- PAGO***

*Artículo 11.-Legitimación para efectuar el pago:*

El pago puede realizarse por cualquiera de los obligados y también por terceras personas con plenos efectos extintivos, de la deuda, sin que ello faculte a los terceros para ejercer ningún derecho ante el Ayuntamiento.

*Artículo 12.- Lugar y momento*

1. El pago deberá hacerse en las entidades colaboradoras o en las entidades que ejercen como caja, de la forma prevista en cada ordenanza fiscal.

2. El plazo para el pago será el siguiente:

— Para las autoliquidaciones: el establecido en las normas de cada tributo.

— Para las liquidaciones: 1 mes desde la fecha de la notificación.

— Las liquidaciones periódicas de notificación colectiva: el plazo establecido es de 45 días

— El pago hecho con efectos timbrados: en el momento de la realización del hecho imponible.

*Artículo 13.-Medios de pago:*

1. El pago en efectivo podrá realizarse mediante, Dinero de curso legal, Cheque, Domiciliación bancaria y aquella que se autorice en cada caso, tal y como recoge los arts. 11 -17 del Reglamento de Recaudación del THB.

2. El que pague una deuda tendrá derecho a justificante del pago realizado.

***IX.- APLAZAMIENTO Y FRACCIONAMIENTO***

<u>*14. artikulua.- Atzeratzea eta zatitzea:*</u>

a) *Aurkezteko lekua.*

Atzeratzeko eta zatitzeko eskabideak Udalaren Erregistro Nagusian aurkeztuko dira.

b) *Eskabidearen edukia.*

Eskabideak honakoak izan beharko ditu, nahitaez: a) Eskatzailearen izen-abizenak, sozietatearen izena, identifikazio fiskaleko zenbakia (edo NANa) eta helbidea; b) Atzeratzea eskatu den zorraren identifikazioa; c) eskatutako epeak; d) atzeratzeko arrazoia. Eskabidearekin batera, finantza-egoera egiaztatzeko agiriak eta eskaintzen den bermea erantsi beharko dira, ezinbesteko baldintza bada. Agirien artean zerbait faltatzekotan, eskatzaileari ohartaraziko zaio, eta hamar eguneko epea izango du hutsa zuzentzeko; bestela, eskabidea aurkeztu ez dela ulertuko da.

c) *Emateko irizpideak:*

Honen arabera emango dira borondatez ordaintzeko epeko zorrak atzeratu eta zatitzeko baimenak:

600 € baino gutxiagoko zorrak gehienez hiru hilabeteko epean atzeratu edo zatitu ahal izango dira.

2.000 € baino gutxiagoko zorrak gehienez sei hilabeteko epean atzeratu edo zatitu ahal izango dira.

2.000 € eta 6.000 € arteko zorrak gehienez hamabi hilabetez atzeratu edo zatitu ahal izango dira.

6.000 € baino gehiagoko zorrak gehienez 18 hilabetez atzeratu edo zatitu ahal izango dira. Alkateari dagokio ebazpena ematea.

10.000 € baino gehiagoko zorrak eta Udal Ikuskaritzak bideratutako espedienteetatik eratorritakoak, Ogasun Sailaren proposamenari jarraituz Alkatetzaren ebazpenak ezarritako epean.

Ohiz kanpoko inguruabarrak kontuan hartuta, Alkatetzaren ebazpenaren bitartez, aurretiaz ezarritako epeak luzatu ahal izango dira.

Oro har, ez da onartuko 150 € baino gutxiagoko zorrik atzeratzea, ohiz kanpoko egoeretan izan ezik.

<u>*Artículo 14.- Aplazamientos y fraccionamientos:*</u>

a) *Lugar de presentación.*

Las solicitudes de aplazamiento y fraccionamiento se presentarán en el Registro General del Ayuntamiento.

b) *Contenido de la solicitud.*

La solicitud deberá contener necesariamente: a) nombre y apellidos, razón social, número de identificación fiscal (o DNI) y domicilio del solicitante; b) identificación de la deuda cuyo aplazamiento se solicita; c) plazos solicitados; d) motivo del aplazamiento. A la solicitud deberán añadirse los documentos acreditativos de la situación financiera y de la garantía que se ofrece, si es requisito imprescindible. El solicitante será apercibido de las deficiencias de documentación, que deberá subsanar en el plazo de diez días, y en caso contrario se tendrá por no presentada la solicitud.

c) *Criterios de concesión:*

Los aplazamientos y fraccionamientos de deudas en período voluntario de pago se concederán de la siguiente manera:

Deudas inferiores a 600 €, podrán aplazarse o fraccionarse por un período máximo de tres meses.

Deudas inferiores a 2.000 €, podrán aplazarse o fraccionarse por un período máximo de seis meses.

Deudas por importe entre 2.000 € y 6.000 €, aplazamiento o fraccionamiento hasta doce meses.

Deudas superiores a 6.000 €, aplazamiento o fraccionamiento hasta 18 meses. La resolución corresponde al Alcalde.

Deudas superiores a 10.000 € y derivadas de expedientes instruidos por la Inspección Municipal el plazo determinado por resolución de Alcaldía a propuesta del Departamento de Hacienda.

Atendiendo a las circunstancias excepcionales, por resolución de Alcaldía se podrán extender los plazos anteriormente fijados.

Como criterio general no se aceptarán aplazamientos por deudas inferiores a 150 €, excepto en situaciones

excepcionales.

Zorrak atzeratu edo zatitzeko gehieneko epeak zuzenbide publikoko gainerako diru-sarrerei ere aplikatu ahal izango zaizkie, horiek arautzen dituen berariazko arauak beren-beregi beste eperen bat zehazten ez badu.

Los plazos máximos de aplazamiento o fraccionamiento de deudas, serán aplicables al resto de ingresos de Derecho Público, salvo que la norma específica que regule éstos últimos determine de forma expresa otro plazo.

d) *Bermeak:*

d) *Garantías*:

Eskatzaileak bermea emango du, eta hau kreditu-erakundeen edo elkarrekiko berme-sozietateen abal solidarioa izango da, edo kauzio-aseguruaren ziurtagiria; eskaerarekin batera, atzerapena ematen bada, erakunde horiek beharrezko abala formalizatzeko beren beregizko eta ezeztaezineko konpromisoa ere aurkeztu beharko dute.

El Peticionario ofrecerá garantía en forma de aval solidario de Entidades de crédito, o sociedad de garantía recíproca, o mediante certificado de seguro de caución, acompañando con la solicitud el correspondiente compromiso expreso e irrevocable de estas Entidades de formalizar el aval necesario si se concede el aplazamiento.

Abal edo ziurtagiri hori lortzerik ez badago edo horrekin enpresaren bideragarritasuna arrisku larrian jartzen bada, ondoko bermeetariko bat onartu ahal izango da:

Cuando no sea posible obtener dicho aval o certificado o si con ello se compromete seriamente la viabilidad de la empresa, se podrá admitir alguna de las siguientes garantías:

- Ondasun higiezinen alde bateko hipoteka.
- Ondasun higigarrien alde bateko hipoteka.
- Bahia, alde bateko lekualdaketarekin zein halakorik gabe.

- Hipoteca inmobiliaria unilateral.
- Hipoteca mobiliaria unilateral.
- Prenda con o sin desplazamiento unilateral.

Bermea emate-erabakia jakinarazi eta hurrengo hogeita hamar egunetan formalizatu behar da; erabakiak ez du ondorerik izango bermea jarri ezean. Interesdunak eskabide arrazoitua aurkeztuta, bermeak onartzeko eskumena duen organoak epealdi hori luzatu ahal izango du, egutegiko laurogeita hamar egunera gehienez ere, epealdian bermea formalizatzea eragozten duten zioak badaude.

La garantía deberá formalizarse en el plazo de los treinta días naturales siguientes al de la notificación del acuerdo de concesión, cuya eficacia estará condicionada a su prestación. Este plazo podrá ampliarse hasta noventa días naturales por el órgano competente para aceptar las garantías, previa solicitud razonada del interesado cuando se justifique la existencia de motivos que impidan su formalización en dicho plazo.

Epe horiek bermea ezarri gabe igarotzen badira, emakida-erabakiak ez du ondorerik izango. Geroratzeko edo zatikatzeko eskabidea borondatez ordaintzeko epea mugaeguneratu baino lehen aurkeztu bada, epe hori berriro hasiko da. Aldiz, epe hori mugaeguneratu ondoren eskatzen bada, premiamendu bidez kobratuko da.

Transcurridos estos plazos sin formalizarse la garantía, quedará sin efecto el acuerdo de concesión. Si la citada solicitud de aplazamiento o fraccionamiento se hubiera interpuesto con anterioridad al vencimiento del plazo de pago en periodo voluntario, se reanudará éste. Por el contrario, si tuviera lugar una vez vencido el anterior, se perseguirá su cobranza por vía de apremio.

Oro har, bermeak ematea barkatuko da atzeratu edo zatitu nahi den zorraren guztizko zenbatekoa, bai borondatez ordaintzeko epean bai betearazpen aldian, 6.000 € baino gehiagokoa ez denean.

Como regla general, se dispensará de la aportación de garantías cuando el importe total de la deuda que se pretenda aplazar o fraccionar, tanto en periodo voluntario como en periodo ejecutivo, no supere los 6.000 €.

Salbuespen egoeretan, eskatzailearen gizarte larrialdia edo ekonomi eta finantza egoera kontuan hartuta, bermeak emateko beharra barkatu ahal izango da alkatearen ebazpenaren bitartez.

En situaciones excepcionales, atendiendo al estado de emergencia social del solicitante o a su situación económico-financiera, por resolución de Alcaldía podrá dispensarse de la obligatoria aportación de garantías.

## *X.- PREMIAMENDUZKO PROZEDURA*

## *X.- PROCEDIMIENTO DE APREMIO*

*15. artikulua.- Betearazpen aldian biltzea:*

Betearazpen aldia automatikoki hasiko da borondatez ordaintzeko epea amaitutakoan, eta horren ondoren egindako edozein diru-sarrera egiteak, borondatezko bilketako kontuetan egin nahiz ez, ez du esan nahi kreditua bete denik; aitzitik, betearazpen aldian erantsitako zorraren konturako sarrera gisa hartuko da.

Tokiko Ogasunei buruzko 9/2005 Foru Arauaren 8. artikuluan xedatutakoa aplikatzeko, udalerriaren lurraldetik kanpo udalerriaren beraren Zuzenbide Publikoko sarrerei buruz egin beharreko betearazpeneko bilketako jarduerak Udalak egingo ditu Bizkaiko Lurralde Historikoaren barruan, eta gainontzeko kasuetan ezarritako nahi ezarri beharreko lankidetza formulen arabera, aplikatu ahal den legediari jaramon eginda.

*Artículo.-15 Recaudación en periodo Ejecutivo:*

El período ejecutivo se inicia automáticamente transcurrido el periodo voluntario de pago y cualquier ingreso efectuado con posterioridad a éste, con independencia de que el mismo se efectúe en cuentas propias de la recaudación en vía voluntaria, no implicará la satisfacción del crédito, sino que se considerará como ingreso a cuenta de la deuda incorporada en periodo ejecutivo.

En aplicación de lo dispuesto por el artículo 8 de la Norma Foral 9/2005 de Haciendas Locales, las actuaciones en materia de recaudación ejecutiva que hayan de efectuarse fuera del territorio del municipio en relación con los ingresos de Derecho Público propios de éste, serán practicadas por el Ayuntamiento en el ámbito del Territorio Histórico de Bizkaia y, en los restantes supuestos, de acuerdo con las fórmulas de colaboración establecidas o que se establezcan, según lo previsto en la legislación aplicable.

*16. artikulua.- Hasiera*

Premiamenduzko prozedura burutzeko, premiamenduzko prozedura jakinaraziko zaio obligaziodunari, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 60. artikuluko 3. atalean azaldutako aldia amaitutakoan.

*Artículo 16.- Inicio*

El procedimiento de apremio se realizara con la notificación de la providencia de apremio al obligado al pago una vez transcurrido el periodo al que se refiere el apartado 3 del art. 60 de la Norma Foral General Tributaria.

*17. artikulua.- Bermeak burutzea*

Zerga zorra bermatuta dagoela, bermea burutzeko erabakia hartu ahal izango du udalak, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 172. artikuluan eta Zerga Bilketari buruzko Araudiaren 46. artikuluan ezarritakoaren arabera.

*Artículo 17.- Ejecución de las garantías*

Estando la deuda tributaria garantizada, el Ayuntamiento podrá optar por ejecutar la garantía de conformidad con lo establecido en el art. 172 de la NFGT y el art. 46 del Reglamento de Recaudación.

*18. artikulua.- Bahiturak*

Premiamendu-erabakiari jarraituz, ondasun eta eskubideak bahituko dira, ordaindu ez den zor edo zigorra, errekarguak edo interesak edo premiamenduzko prozeduraren kostuak eta, hala

*Artículo 18.- Embargos*

En virtud de la providencia de apremio se procederá al embargo de los bienes y derechos en cuantía suficiente para cubrir, la deuda o sanción no ingresada, los recargos o intereses o las costas del procedimiento

badagokio, kautelazko neurriak ordaintzeko besteko zenbatekoan.

de apremio y en su caso las medidas cautelares.

Bahitura, Zerga Bilketari buruzko Araudiaren 50-61. artikuluetan araututakoari jarraituz egin ahal izango da, honakoekin:

El embargo podrá realizarse tal y como se regula en los art. 50-61 del Reglamento de Recaudación sobre:

a) Esku-dirua.

a) Dinero en efectivo.

b) Kreditu edo gordailu erakundeetan dauden ondasun edo eskubideak.

b) Bienes o derechos en entidades de crédito o de depósito.

c) Soldata eta pentsioak.

c) Sueldos, salarios y pensiones.

d) Ondasun higiezinak eta horien gainean ezarritako eskubide errealak.

d) Bienes inmuebles y los derechos reales establecidos sobre los mismos.

e) Interesak, errentak eta edozein modutako irabaziak.

e) Intereses, rentas y frutos de toda especie.

f) Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen eskubide sendotuak, pentsio planak, Gizarte Aurreikuspeneko Mutualitateak eta aseguratutako aurreikuspen planak.

f) Derechos consolidados de entidades de Previsión Social Voluntaria, planes de Pensiones, Mutualidades de Previsión Social y Planes de previsión Asegurados.

g) Bestelako kreditu, efektu eta eskubideak.

g) Otros créditos, efectos y derechos.

Bahitutako ondasunak besterentzeko, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 176. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio, eta Zerga Bilketari buruzko Araudiaren 66-81. artikuluetan ezarritako baldintzak betez. Honakoen bitartez egingo da:

La enajenación de los bienes embargados se hará de acuerdo a lo establecido en el art.- 176 de la NFGT y cumpliendo las condiciones que recoge los artículos 66- 81 del Reglamento de recaudación, mediante:

a) Enkante publikoa.
b) Lehiaketa publikoa.
c) Zuzeneko adjudikazioa.

a) Subasta pública.
b) Concurso público.
c) Adjudicación directa.

*19. artikulua.- Prozeduraren amaiera*

*Artículo 19.-Terminación del procedimiento*

Honakoetan amaituko da premiamenduzko prozedura:

El procedimiento de apremio termina:

Zorrak eta kostuak ordaintzean.

Con el pago de las deudas y las costas.

Kreditu kobraezinak aitortzean.

Con la declaración de créditos incobrables.

Arrazoia edozein dela, zor edo zigorra amaitu dela dioen erabakia hartzean.

Con el acuerdo de haber quedado extinguida la deuda o sanción por cualquier otra causa.

***XI.- PERTSONA KOBRAEZINAK ETA KREDITU***

***XI.- DECLARACIÓN DE FALLIDOS Y CREDIOS***

**_KOBRAEZINAK AITORTZEA_**

_20. artikulua.- Pertsona kobraezinak eta kreditu kobraezinak aitortzea_

Zerga-bilketa Zerbitzuak zergapeko bat kobraezintzat aitortuko du kaudimengabezia frogatuagatik edo non bizi den ez jakiteagatik zerga-bilketako administrazio-prozeduren bidez zorra ordainarazi ezin bazaio, prozedura horietan dauden datuei eta egindako egintzei jaramon eginda. Kobraezintasun osoaren edo partzialaren aitorpenak erantzukizun subsidiarioa dela-eta erantzukizuna beste balizko zergapekoen aurka eramateko espedientea abiarazteko aukera irekiko du; dena den, horrek ez du eragotziko Udal Ogasunak huts egindako zordunaren aurkako ekintza egokiak gauzatzea, zor hori kobratzeko administrazio-ekintza iraungitzen ez den bitartean.

Zordun baten kobraezintasun-egoerak, kredituak kobraezinak aitortu badira ere, ez du eragotziko inola ere horien ordainketari, birgaitze egokiaren ondoren, eragozpen-xede izan daitezkeen zenbatekoak, konpentsazioaren xede izan daitezkeenak, atzeman diren edo atzeman daitezkeen ondasunen besterentzeen ondorioz eskuratzen direnak edo beste edozein diru-sarrera aplikatzea.

Zergapekoa kobraezina dela adierazteko egintzak Zerga-biltzaileak hala proposatuta hasiko dira, premiamenduko prozedura emaitzarik gabe agortu eta gero, eta zorduna non dagoen ez jakiteagatik edo kaudimengabeziagatik kobratu ezin dela agerraraziko da.

a) Zorduna non dagoen ez dakitela justifikatzeko, zuzenean jakinarazi ezin izan diren jakinarazpenen zerrenda azalduko da, bai eta jakinarazpenetarako baliozko helbidea lortzeko burutu ziren ikerketa guztien emaitzak ere.

b)Kaudimengabezia egoera egiaztatzeko ondoko irizpide hauek kontuan hartuko dira, espedientean xede den kopuruari jaramon eginda:

— Pertsona fisikoak, 300 €-ra arte: Kontu korronterik edo aurrezki konturik ez edukitzea edo beraietan saldorik ez edukitzea, soldatarik edo bestelako prestaziorik ez egotea edo horiek bahitezinak izatea.

**_INCOBRABLES_**

_Artículo 20.- Declaración de fallido y créditos incobrables_

Se declararán fallidos por Servicio de Recaudación los obligados al pago cuya deuda no pueda hacerse efectiva en los respectivos procedimientos administrativos de recaudación por insolvencia probada o desconocimiento del paradero de los mismos, atendiendo a los datos obrantes en aquellos y a la vista las actuaciones realizadas. La declaración de fallido, total o parcial, abrirá la posibilidad de iniciar el expediente de derivación de responsabilidad contra otros posibles obligados por responsabilidad subsidiaria, sin que impida el ejercicio por la Hacienda Municipal de las acciones que correspondan contra el deudor fallido en tanto no se extinga la acción administrativa para su cobro.

La situación de fallido de un deudor, aún habiéndose declarado incobrables los créditos, no impedirá en ningún caso que se puedan aplicar al pago de éstos, previa su oportuna rehabilitación, las cantidades que puedan ser objeto de traba, compensación, las que se obtengan como resultado de enajenaciones de bienes que hayan sido detectadas o se detecten, o cualquier otro ingreso.

Las actuaciones para la declaración de fallido del obligado tributario se iniciarán a propuesta del Recaudador, una vez agotado sin resultado el procedimiento de apremio, haciéndose constar la imposibilidad de cobrar bien por desconocerse el paradero del deudor o bien por insolvencia.

a) Para la justificación del carácter de desconocido del paradero del deudor, se contendrá la relación de notificaciones cuya notificación personal haya sido imposible efectuar y el resultado de cada una de las actuaciones de investigación llevadas a cabo con el fin de obtener dirección válida a efectos de notificaciones.

b) La situación de insolvencia económica se acreditará atendiendo a los siguientes criterios en función de la cuantía perseguida en el expediente:

— Personas físicas hasta 300 €: carencia de cuentas corrientes y ahorro o de saldos en las mismas e inexistencia de salarios u otras prestaciones o inembargabilidad de estos.

— Pertsona juridikoak , 300 €-ra arte: Kontu korronterik edo aurrezki konturik ez edukitzea edo beraietan saldorik ez edukitzea.

— Pertsona fisikoak, 300,01 €-tik 1.000 €-ra arte: Kontu korronterik edo aurrezki konturik ez edukitzea edo beraietan saldorik ez edukitzea, soldatarik edo bestelako prestaziorik ez egotea edo horiek bahitezinak izatea eta zerga arloko itzulketarako eskubidearen titularra ez izatea.

— Pertsona juridikoak, 300,01 €-tik 1.000 €-ra arte: Kontu korronterik edo aurrezki konturik ez edukitzea edo beraietan saldorik ez edukitzea, eta zerga arloko itzulketarako eskubidearen titularra ez izatea.

— Pertsona fisikoak, 1.000,01 €-tik 3.000 €-ra arte: Kontu korronterik edo aurrezki konturik ez edukitzea edo beraietan saldorik ez edukitzea, soldatarik edo bestelako prestaziorik ez egotea edo horiek bahitezinak izatea eta zerga arloko itzulketarako eskubidearen nahiz bahitu daitekeen ibilgailuen titularra ez izatea.

— Pertsona juridikoak, 1.000,01 €-tik 3.000 €-ra arte: Kontu korronterik edo aurrezki konturik ez edukitzea edo beraietan saldorik ez edukitzea, zerga arloko itzulketarako eskubidearen nahiz bahitu daitekeen ibilgailuen titularra ez izatea.

— Pertsona fisikoak, 3.000,01 €-tik gora: Kontu korronterik edo aurrezki konturik ez edukitzea edo beraietan saldorik ez edukitzea, soldatarik edo bestelako prestaziorik ez egotea edo horiek bahitezinak izatea, zerga arloko itzulketarako eskubidearen nahiz bahitu daitekeen ibilgailuen titularra ez izatea, eta gainera ondasun higigarri edo higiezinen titularra ez dela egiaztatzen duen erregistroaren agiria.

— Pertsona juridikoak, 3.000,01 €-tik gora: Kontu korronterik edo aurrezki konturik ez edukitzea edo beraietan saldorik ez edukitzea, zerga arloko itzulketarako eskubidearen nahiz bahitu daitekeen ibilgailuen titularra ez izatea, eta gainera ondasun higigarri edo higiezinen titularra ez dela egiaztatzen duen erregistroaren agiria.

Zerga-bilketa Zerbitzuak, pertsona kobraezinen aitorpena tramitatzean, zerga arduradunak egon

— Personas jurídicas 300 €: Carencia de cuentas corrientes/ahorro o de saldos en las mismas.

—Personas físicas desde 300,01 € hasta 1.000 €: Carencia de cuentas corrientes/ahorro o de saldos en las mismas, inexistencia de salarios u otras prestaciones o inembargabilidad de éstos y no titularidad de derecho a devolución de carácter tributario.

— Personas jurídicas desde 300,01 € hasta 1.000 €: Carencia de cuentas corrientes/ahorro o de saldos en las mismas y no titularidad de derecho a devolución de carácter tributario.

— Personas físicas desde 1.000,01 € hasta 3.000 €: Carencia de cuentas corrientes/ahorro o de saldos en las mismas, inexistencia de salarios u otras prestaciones o inembargabilidad de éstos, no titularidad de derecho a devolución de carácter tributario y de vehículo/s susceptible/s de embargo.

— Personas jurídicas desde 1.000,01 € hasta 3.000 €: Carencia de cuentas corrientes/ahorro o de saldos en las mismas, no titularidad de derecho a devolución de carácter tributario y de vehículo/s susceptible/s de embargo.

— Personas físicas desde 3.000,01 € en adelante: Carencia de cuentas corrientes/ahorro o de saldos en las mismas, inexistencia de salarios u otras prestaciones o inembargabilidad de éstos, no titularidad de derecho a devolución de carácter tributario y de vehículo/s susceptible/s de embargo, además de certificación negativa del registro relativa a la titularidad de bienes muebles o inmuebles.

— Personas jurídicas desde 3.000,01 € en adelante: Carencia de cuentas corrientes/ahorro o de saldos en las mismas, no titularidad de derecho a devolución de carácter tributario y de vehículo/s susceptible/s de embargo, además de certificación negativa del registro relativa a la titularidad de bienes muebles o inmuebles.

El Servicio de Recaudación si al tramitar la declaración de fallido, tras la indagación de la posible existencia de

litezkeen ikertu ostean beste obligaziodunik ez dagoela ebazten badu, kreditua ere kobraezina dela aitortzeko proposatuko du.

Aurreko tramiteak burutakoan, udal diruzainak akats proposamena egingo du eta, onetsitakoan, baja emango zaie dagozkien matrikula eta kontuetan. Era berean, zergadun kobraezinen fitxategia eratuko da, zorra hurrengo lau urteetan gordetzeko, geroagoko zerga jardueren bitartez zorduna aurkitzekotan erabili ahal izateko, jardun litezkeen ondasunei edo helbideari dagokienez.

responsables tributarios determina la inexistencia de otros obligados, propondrá asimismo la declaración del crédito incobrable

Ultimados los anteriores trámites, el Tesorero Municipal elevará la oportuna propuesta de falencia, y una vez aprobada, se dará de baja en las correspondientes matrículas y cuentas y se formará un fichero de contribuyentes fallidos que contenga los cuatro años siguientes, el débito, si el deudor, por actuaciones tributarias posteriores fuere localizado en cuanto a domicilio o bienes sobre los que poder actuar.

## ***XII.- AZKEN XEDAPENA***

Bakarra: Indarrean sartzea:

Ordenantza hau indarrean sartuko da testu osoa Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu ostean, eta ez du atzeraeraginik izango. Hala ere, zerga arloko arau-hauste eta zigorren araubideak eta gainordainen araubideak atzeraeragina izango dute ekintzak irmoak ez direnean, hori aplikatuta onura handiagoa eskuratzen bada.

## ***XII.- DISPOSICIONES FINAL***

Única: Entrada en vigor:

La presente Ordenanza entrará en vigor tras su publicación el BOTHB, y no tendrá efectos retroactivos, no obstante lo anterior, el régimen de infracciones y sanciones tributarias y el de recargos, tendrá efectos retroactivos respecto de los actos que no sean firmes cuando su aplicación resulte más favorable.

**BAO. 171.zk. 2006. irailak 7. osteguna**

**BOB núm.171.jueves,7 de septiembre de 2006**